

Hizkuntza eta pentsakera

TXILLARDEGI



Jon SUDUPE

* Txillardegí. *Hizkuntza eta pentsakera*. Mensajero, 1972, Bilbo

HIZKUNTZA ETA PENTSAKERA: EDO ESTRUKTURALISMOAREN MUGAK

Txillardegi dugu gaur egun euskaldunok daukagun saiolaririk garrantzitsuena Koldo Mitxelena zenarekin eta Joxe Azurmendirekin batera. Bera de lehen euskal entsaio modernoaren egilea. *Huntaz eta Hartaz* izeneko entsegu gogoangarri hark bide berriak urratu ezezik, haize berriak ere ekarri zizkion gure hizkuntzari. Saiakeraz aparte, puntako eleberriak, gramatika bikainak eta ehundaka artikulua mamitsu eginak ditu, beti ere euskara bizi, aberats eta dotorez oratuak. Bera izan da, hitz batean, gure literaturazko modernotasunaren branka.

Guztiek aho batez aitortzen dutenez, goreneko maila irabazi du euskal idazleen artean gure antiguatarrak. Ongi mereziak ditu, beraz, gure eskerrona eta begirune kritikoa, nahiz eta egiteke dagoen oraindik bere pentsamendu eta lan eskergaren balorazio orokorra. Hainbat arrazoiengatik, ni ezin naiteke mintzaide egokiena izan haren ekarri oparoa kritikatzeko. Hizkuntzalari edo literatur kritikoren bat litzateke, agian, aztertzaile egokia. Alabaina, besterik ezean, eta J.L. Zabala herkideak eskatu didanez gero, barkatuko ahal dit irakurleak kritika kaxkar hau argitara emateko izan dudana ausardia.

Gogoratu beharrik ere ez dago Larresoro izenordearen pean argitaratu zuela liburu hau Txillardegi izengoitiz izendatu ohi dugun idazleak. Esan beharra dago, hori bai, bera izan dela estrukturalismoaz euskaraz mintzatu den lehen idazlea. *Hizkuntza eta pentsakera* saio bildumak pentsamenduaren funtsezko kezka, interregune eta *temak* laburbiltzen ditu nolarebait.



Duela hogeitaurotu pasatxo Euskal Herriak bizi zuen historiune sozial eta intelektualean kokatu behar da Txillardegiren saiakera hau. Hots, idazlan hau kinka jakin batean idatzia izan zen, eta, kontrazalean dioen bezala, *leit motiv* bakarra zuen: *marxismoaren esan batzu estrukturalismoaren argitan aztertu*. Marxismoaren kontrako burruka da, bada, *Hizkuntza eta pentsakera* honen benetako transfondo politikoa.

Hizkuntza: bereizle ala batzaile?

Lengoiaren izaera konplexua da oso eta mintzairak aztertzeo ikuspegiak ere desberdinak dira. Hiru bereiz daitezke, gutxienez. Ikuspegi linguistikoa legoke lehenbizi, lengoaia bere horretan, kanpotiko zerarik gabe ikertzen duena. Bigarrenik, ikuspegi sozio-linguistikoa daukagu, hizkuntzaren alderdi sozialez arduratzen dena. Eta ikuspegi soziologikoa, azkenik: bere ahalmen sinbolikoarengatik, ezagutzen duen pisuarengatik eta komunikazio tresna nagusia izateagatik guztiz garrantzitsua den errealitate soziala baita lengoaia. Saio honetan batez ere azken ikuspegi honetatik begiratzen dio hizkuntzari Txillardegik, nahiz alderdi linguistikoa ere jorratzen duen, euskal bokalak edota koloreen izenak aztertzen dituenen, adibidez.

Oinarrizko arazo filosofiko bat planteatzen digu: zein dira hizkuntza eta pentsamenduaren arteko erlazioak, edo zehatzago esanda, ea hizkuntza ezberdinek mundu ikuskera ezberdinak taxutzen eta moldatzen ote dituzten. Hitz batean, hizkuntza eta *Weltanschauung*-en arteko harremanez dihardu antiguatarrak hemen.

Hizkuntzak zein erabakiorki mugatzen dituen herri baten pentsamolde eta izakera azaldu eta ikustarazi nahi digu. Hizkuntza bakoitzak bere pentsakera berezia, azterketa berezia, taxukera berezia ematen duela esango digu behin eta berriz Lévi-Strauss aipatzen duelarik: *Lengoaia ez dagokio bakarrik gizonaren muinari; hizkuntza jakin batek funtsezko zerikusia du gizatalde jakin baten izaera eta irautearekin*. Hizkuntzak moldatzen du funtsean herrien pentsakera. Tesi hau etengabe errepikatzen zaigu izkribu osoan barrena.

Neurri handi baten arrazoi du Txillardegik: hizkuntza eta pentsakera eskuz-esku doaz; gure mundu ikuskera lengoaiaren bidez taxutzen dugu. Pentsamenduak elkarrizketazko egitura du eta, beraz, ekintza linguistikoa da. Bestela esanda: hitzen eta esaldien bidez pentsatzen dugu. Egia da, baitere, gizarte bat besteetatik bereizten duten ezaugarrien artean hizkuntza dugula nabarmenetakoa. Hizkuntza batek egiten du herri bat beste ezerk adina edo gehiago, K. Mitxelena zenak esango lukeenez. Alde honetatik ez dago zalantzarik.

Baina giza-izpirituaren batasuna zalantzan jartzea, bigarren kapituluaren egiten duen bezala, gehiegikeria bat da inolaz ere. Txillardegiren ustez, hizkuntzak elkarri ezin alderatuzkoak ditugu (elkarneurgaitzak, esango luke T. Kuhn-ek). Bere iritziz, ez dago Logikazko hizkuntzarik ez ikuskera logikorik. Logikaren seme ez direnez, *hizkuntza guztiak funtsez dira desberdinak*. Osorik onartzen du Txillardegik Humboldt-en teoria hau.

Jakina denez, hizkuntz erlatibismoaren lehen formulazioa, gero Sapir eta Whorf-ek garatu zutena, Humboldt-i zor zaio: *hizkuntz egitura bakoitza mundua atzemateko modu bati dagokio*. Humboldt eta erromantiko alemaniarren ustez, hizkuntza da Herri baten arima. Hauek diotenez, azpiko indar batek, herri izpiritu batek determinatzen ditu bai pentsakera eta bai hizkuntza. Eta ondorioz, ez dago bi hizkuntzen artean berdintasunik.

Txillardegirekin ez dator bat horretan. Hizkuntzak hain desberdinak direnik ez dut inolaz ere sinesten. Honetan ere Koldo Mitxelena zenaren hitzak ekarriko ditut hona neure iritzien lagun: *gizona* (nahiz zuri, nahiz beltz, nahiz hori) *gizon den bezalaxe, giza hizkuntza ere ez da, funtsez, giza hizkuntza baizik alde eta aldi oro, nahiz axaleko ñabardurez bereiz agertu*.

Benetako mintzairaren unibertsalik badela uste du Chomskik. Posible da, hizkuntza desberdinetatik abiatuz, hizkuntzaren gramatika ideal eta osoa eraikitzea. Chomskiren ustetan, gizaki guztiek gramatika arau berberak dituzte, edo bestela esanda, hizkuntza guztiek mintzairaren egitura berberak dituzte.



Gizabanakoa, funtsean, hitz egiten duen izaki bat da. Lengoaiak mediatizatzen du errealitatea: munduarekiko ezagutza eta harremana, besterekiko ezagutza eta harremana, norberarekiko autoezagutza eta harremana. Gure errealitate linguistikoaren kontzientziak filosofia modernoaren bizkarrezurra zen solipsismo –indibidualismo– metodologikoa desegin du.

Azken denboretan filosofi alorrean gertatutako aldaketarik nabarmena Richard Rortyk «biraketa linguistikoa» deitu duen hori izan da. Bigarren Wittgensteinengan oinarriturik, mintzairaren eginkizun komunikakor eta pragmatikoa azpimarratu izan du jarrera berri honek. Hizkuntz biraketa hori eta Austin eta Searlek landutako hizketa egintzaren teoria oinarritzat hartuz, pragmatika unibertsalaren teoria eraiki dute Habermas eta Apelek.

Hauk diotenez, lengoaiaren egitura arrazionala bereziki komunikakorra da: elkar ulertzeko hitzegiten dugu. Hizkuntza elkar aditzeko egina dago, elkarrengandik bereizteko ez baizik elkarrengana biltzeko. Oposizioa ez baino akordio du helburu. Batipat elkar ulermenerako bidea denez, hizkuntzak kontsentsura bultzarazten gaitu. Mintzairaren zimendu arrazionaletan oinarriturik dagoen akordio joera hori da Habermasek proposatzen duena.

Gaur egun onartzen den errealitate objektibo bakarra intersubjektibitatea da. Egia akordioan datza. Arrazoi du, alde batetik, Txillardegik: lengoaiaren mende gaude erabat; besterengandik jaso eta bestelako denbora eta kulturen substraktua den mintzairaren menpean gaude. Baina, bestetik, bere mugen jakitun dago gizabanakoa; badaki bere arrazoia ez dela monologikoa, dialogikoa baizik.

Bistan da, beraz, hizkuntza alde-batetik bereizle dela, eta bestetik batzaile. Txillardegik dionaren kontra, hizkuntza ez da beti, eta denean, diferentziala. Funtsean hizkuntza batetik bestera igarotzea ezina bada, zer arraio gabiltza ume erdaldunei euskara irakatsi nahian? Ezen K. Mitxelenak egoki zioenez: «*Hizkuntza desberdinen muinean eta ondoan Giza Mintzaia dago.*»

Soziolinguistika versus gramatika

Ferdinand de Saussure da, jakina denez, hizkuntzalaritza orokorraren sortzailea. *Langue* (hizkuntza) eta *parole*-aren (edo hizketaren) artean bereizkuntza guztizkoa ezarri zuen linguistika estrukturalaren fundatzaileak. Komunitate linguistiko batek daukan zeinu sistema dugu hizkuntza; hizketa, berriz, bakarkako egintza da, subjektuak sistema horren erabilera selektibo eta diferentziala egiten baitu. Garbi dauka Saussurek zer den, bere ustetan, soziala eta funtsezkoa eta zer indibiduala eta akzidentala: egitura abstraktua eta gizarteko tresna homogenea da hizkuntza; hizketa, ostera, aukera indibidual bat besterik ez. Hizkuntza, lehenik eta behin, erakunde bat, instituzio bat da.

Hizkuntza eta gizartearen arteko elkarreragina gutxietsi egin bide zuen estrukturalismoaren aitak. Hizkuntzan nahitaez islada eta eragina duten aldaketa sozial eta politikoak, desberdintasun sozialak, botere harremanak eta antzekoak «kanpotiko linguistikatzat» zeuzkan genebatarrak. Hizkuntzaz kanpoko faktoreak izaki, hizkuntzalaritzatik bazter utzi zituen. Ondorioz, edozein hizkuntzak bere kontestuekiko dituen erlazioak ez zituen behar bezala aztertu, hizkuntza bere baitatik ikertzea baitzen bere helburua.

Chomski, gramatika sortzailearen aitak, bere aldetik, lengoaiaren arauen ezagutza abstraktura mugatzen du linguistika (*competence*, hizkuntz gaitasuna deritzo honi), erabilpen linguistikoaren ikerketa (edo *performance* delakoa) alde batera utziz. Hizkuntza guztiz ongi ezagutu eta gramatikaz kanpoko eraginik ez duen hiztun-entzule idealaz arduratzen da hizkuntz teoria chomskiarra.

Ez Saussurrek eta ez Chomskik hartzen dute kontutan testuinguru soziala. Hizkuntza eta gizartearen arteko harreman ezin estuagoari linguistikaren adar berri batek egin dio jaramon berezia, ia oraintsu arte (lehen konferentzia Los Angelesen ospatu zen 1964ean) «heterodoxoa» izandako soziolinguistikak, hain zuzen. Linguistika estrukturalak hizketaren azterketari edota gramatika sortzaile-bihurtzaileak performantziarenari ematen dion garrantzi txikiegiaren



aurrean, hizkuntzaren erabilera ñabar eta askotarikoa hartzen du kontutan soziolinguistikak.

Nahiz eta estrukturalismoaren (zein Chomskiren) defizit edo mugapen hau aipatu ere ez egin bere liburuan, Txillardegia bera izan da harrezkero hizkuntzaren alderdi honetaz gehien arduratu direnetakoa (diglosiaz, bereziki) gure artean. Ibon Sarasolak goraiatu egin du berriki Txillardegiren bilakaera edo aldaketa hau. Izan ere, hizkuntza oso fenomeno konplexua da, izan, eta bere alderdi ezberdinen artean soziologiari dagozkionak dira, beharbada, nabarmenenak.

Soziologiaren ikuspuntutik Parsons izan da hizkuntzaren izakera guztiz soziala gehien azpimarratu duena. Sistema sozialak, bere iritzi, sinbolizazio linguistikoaren eta komunikazioaren menpean daude. Lengoia da komunikazio tresnarik orokorra: hortik eratorri dira gainontzeko mekanismo sinbolikoak (dirua, boterea, etab.).

Hizkuntzarekin batera arau eta balore sozial batzuk geureganatzen ditugu. Zentzu honetan, kontrol sozialeko sistema edo mekanismoa dugu hizkuntza. Inposatu egiten zaigun sorkari soziala da mintzaira: ezarritako zerbait da guretzako; beraren bidez egiten dugu munduaren ezagutza eta sortzen geure pentsamendua. Pentsamendu dialogikoa ezinbestean, gizartea bera baita gure solaskide.

Bourdieu-k bere *Ce que parler veut dire* liburuan hizkuntza eta boterearen arteko erlazio estua erakusten digu: gizarteko talde ezberdinen hierarkia adierazten du hizkuntz egoeren hierarkiak. Botere harremanak zein gizarte desberdinkeriak isladatzen ditu hizkuntzak. Horregatik, nagusitzen den hizkuntza, nagusi den klasearen hizkuntza dela esan dezakegu Marxen esaldi ezaguna aldatuz.

Lengoaiaren arazoa komunikazioaren zelaira ekartzeak politika eta etikarekin zerikusia duten arloak irekitzea suposatzen du, bestalde. Hizkuntza eta Estatua, hizkuntza eta politika hertsiki loturik daude. Txillardegik berak aitortua du hizkuntzaren eta politikaren

arteko gorabeherak aztertzen hasten direnean, zozokeria handiak esan ohi dituztela hizkuntzalariek. Estatua da hizkuntza baten etorkizuna erabakitzen duena. Askatasuna izan ala ez izan, *Erresuma libro batean lege-hizkuntza izan ala ez izan*, horretan datzala auziaren kakoa eta egiazko giltzarria esaten digu Txillardegik. Eta egia du, beharbada.

Nolanahi ere, Euskal Autonomi Elkarteak, garai batean Estoniak bezalatsu, badu gaurregun, erdizka bederen, aginterik euskara zuzpertz eta berreskuratzeko. Baina, hori bai, hizkuntzaren betekizun nagusia elkar ulertzapena eta akordioa iristea den bezala, politika linguistikoan ere ahalik eta adostasun eta kontsentsu handiena lortu behar da. Hots, euskal herritarrek dute azken hitza. Zeren eta, Txillardegik berak inoiz idatzi izan duenez, *hizkuntza gizonaren zerbitzuko da, eta ez alderantziz gizona hizkuntzaren*.

Txillardegik liburu hau idatzi zuenean amestu ere egin ez zitzakeen aurrerapausoak eman ditu euskarak azken hogeita bost urteotan. Euskara hizkuntza normal eta ohizko bihurtzeko egin den lana ikaragarria izan da. Gaur bertan jakin dugu euskaldun bat izendatu duela idazkari nagusi Euskadiko Partido Popularrak, euskara bultzatzearen aldeko jarrera agertu nahiz edo. Egia da, halere, euskara ez dagoela guztiz prest kultura tresna izateko eta egiteko asko dagoela oraindik normaltasun erreala batera iritsi ahal izateko.

Estrukturalismotik posestrukturalismora

Txillardegiren saiakera hau agertu zenerako, luzaroan jaun eta jabe izandako marxismoa gainbehera zihoan Frantzian. Ideien burruka-zelaiari irabazle atera zena estrukturalismoa izan zen. Estrukturalismoak arrakasta izugarria izan zuen hizkuntzatik kanpo ere jakintzaren eremu askotan: etnologian (Lévi-Strauss), psikoanalisian (Lacan), literaturazko kritikan (Barthes), genealogian (Foucault) eta beste.

Estruktura eta subjektuaren arteko lehia berezi horretan Lévi-



Strauss nagusitu zitzaion Sartreri: *Giza zientzien azken helburua ez da gizona eraikitzea, deuseztea baizik*. Hori izan zen joera berriaren deiadarra. Althusserren eskutik etorri zen marxisten erantzuna ez zen proposamen estrukturalistak arbuiatzea izan, indartzea baizik. Lévi-Straussi eraso beharrean, honen ideiak bere egin zituen Althusserrek marxismoaren antihumanismo teorikoa aldarrikatuz. 68ko maiatzaren ondoren, haatik, bere teoria zuzentzen ahalegindu zen Althusser *masen* papera azpimarratuz. Baina beranduegi zen: marxismo althussertiarrek porrot egin zuen 1970eko harmarkadaren erdialdera.

Estrukturalismoa modako bihurtu zen, bada, eta liluratu egin zuen Txillardegi (marxismoak liluratu gintuen modu berean). Eta hor egon da Txillardegi eta gu guztion akatsa: estrukturalismoa (zein marximoa) filosofiatzat edo mundua esplikatzen dotrinatzen –erlijio gisa, askotan– hartu izana. Ezen Saussure berak esan ohi zuenez, hizkuntz barrutirako bakarrik balio zuen bere metodoak, ez beste alorretarako.

Hizkuntzatik kanpora gertatu den estrukturalismoaren hedadura neurritz gaineko horren ondorio zuzena da Frantziak une honetan bizi duen «sasarte teorikoa»: orain posestrukturalismoa da lehen estrukturalismoa zena. Foucault, Lacan, Derrida, Deleuze ditugu azkenaldi honetako maisu pentsalari berriak, baina kontu honek urrunegi eramango gintuzke..

Zoritxarrez, egun ez dago gure artean azken orduko korrante eta joera hauek argituko dituen entsegugilerik. Txillardegi bera ere, ideia berrien propagandista izan ondoren, mututu egin bide da, ez baitigu aspaldian pentsamenduzko saiakera berririk oparitu. Eta tamalgarria da, benetan. Agian eskainiko digu besterik Antiguako euskaltzale porrokatuak!